



**BETELURIKO EUT-EAN SODIO KLOORITO LIKIDOAREN HORNIDURA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.:3213**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Luis María Hernando García
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: BETELURIKO EUT-EAN SODIO KLOORITO LIKIDOA HORNITZEA 2.- Zer beharri erantzun behar zaien: Aurreoxidazioa (EUTean sartzen den ur gordineko materia organikoa, amonioa, burdina eta manganesoa oxidatzea) kloro likido disolbatua duen ur-korrontea injektatuz egin ohi da. Prozesuaren ondorioz desinfekzioaren azpiproduktuak eraten dira, hornidurako ur-kalitateari buruzko araudiak araututakoak; hain zuzen ere, trihalometanoak. Temperatura, materia organikoaren kontzentrazioa eta kontaktu-denbora handitu ahala, era berean handituko da eratutako trihalometanoen kantitatea; haien kontzentrazioa 100 µg/l-ra mugatzen du 3/2023 Errege Dekretuak, kontsumorako uraren kalitatearen eta uraren kontrol eta horniduraren irizpide tekniko-sanitarioak ezartzen dituenak. Ur gordineko materia organikoaren behar bezalako oxidazioa bermatu nahi badugu, kloroarekin dagoen efikazia berarekin, trihalometanoak sortu gabe, kloro dioxidoa erabil daiteke. Kloro dioxidoa oxidatzaile sendoa da, eta Beteluriko errektore batean sortzen da gas kloroa eta % 25eko sodio kloritoa nahastean. 3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontratuaren objektuan jasotako prestazioak modu independentean emateak zailtasunak ekartzea kontratua ikuspuntu teknikitik zuzen gauzatu dadin; edo kontratua zuzen ez gauzatzeko arriskua etortzea haren objektuaren izaeratik, zeren eta berekin baitakar prestazioak emateko koordinatu beharra eta hori ezinezko gerta bailiteke loteka zatitzearen eta zenbait kontratistaren artean gauzatzearen ondorioz. Bi egoera horiek, kasuan-kasuan, behar bezala justifikatu beharko dira espedientean.
4.- CPV: CPV kodea:24312210-9 Deskribapena: Sodio kloritoa
5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ



B.- KONTRATUAREN XEDEA

Onartzeko baldintzak eta aldaera edo alternatibarik izan lezaketen elementuak: Ez da aplikagarria

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua (BEZik gabe)

LAUROGEITA HAMAHIRU MILA ETA BOSTEHUN (93.500,00) euro.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 205.700,00 euro

SPKLren 301.2 artikuluekin bat etorritik, hornitu beharreko unitateen kopurua % 10 handitu ahalko da, dagokion aldaketa-espeditzea izapidetzea beharrezkoa izan gabe.

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

2026. urtea: 221.13.169.12 partida 93.500,00 € BEZik gabe

5.- Prezioen berrikuspena:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta. Hileko ziurtagiria.

8.- Konturako ordainketak: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa URTEBETE (1)

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

Urte bat (1)

4.- Bermealdia: Ez da aplikagarria

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ur Partzuergoaren instalazioak. Beteluri, Arrigorriagako udal-mugartea.

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko da gutxienez. (93.500,00 €)

G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

1. Kontratuaren izaera bereko edo antzekoarekin azken hiru urteetan egindako horniduren zerrenda (CPV kodeen zerrendako 24312200-6 sodio kloritoa kodearen arabera), adierazita haien zenbatekoa, datak eta hartzailea (publikoa edo pribatua), betiere exekuzio handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren batez besteko urteko ordainketaren % 70 edo handiagoa bada. Egindako hornidurak organo eskudunak emandako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira, hartzailea entitate publiko bat izan denean, edo bezero pribatuak emandako ziurtagiriaren bidez, edo hala badagokio, enpresaburuak berak egindako adierazpenaren bidez.
2. Kalitate-arau teknikoak (UNE-EN 938:2016) betetzen direla frogatzea, ziurtagiri batekin, substantziaren, ezpurutasunen eta azpiproduktu nagusien lagin baten analisiaren emaitzek UNE-EN araua betetzen dutela frogatzekoa. Ziurtagiri hori ezaugarri hauek betetzen dituen laborategi batek eman behar du:
 - a. UNE-EN ISO/IEC 17025 arauaren bitartez egiaztatuta izan dezala UNE-EN arauak deskribatutako analisi-metodoa.
 - b. Gutxienez ura aztertzeke beste metodoren baten bidez egiaztatuta egotea eta eskatutako metodoak eta analisiak baliozkotuta izatea.
 - c. BPL ziurtagiria izatea (Laborategiko jardunbide egokien ziurtagiria, substantzia kimikoen saiakuntza ez-klinikoetarako, biozidak eta REACHek arautzen dituen substantziak barne hartuta).
3. Preskripzio tekniko partikularren agiriaren 4.1 apartatuan (eskatutako ezaugarri teknikoak eta ezpurutasun-maila) eskatzen diren eta aurreko 7. apartatuan eskatutako analisisan barne hartzen ez diren parametroetarako (bereziki, bermatutako narotasunari dagokionez), bete egiten direla frogatu beharko da, analisi baliokide baten medioz.
4. Giza kontsumorako ur-sorkuntzarako ur-tratamendurako substantziei buruzko informazioa, eguneratzen edo aldatzen den aldi bakoitzean eman beharko dena.
 - a. Substantziaren edo nahasketaren segurtasun-datuen fitxa osoa, REACH erregelamenduari jarraikiz.
 - b. Substantzia edo nahasketaren erabilera-eskuliburua, gutxienez honako hauek jasoko dituenak:
 - i. Erabilera.
 - ii. Gomendatutako dosia.
 - iii. Helburua.
 - iv. Beste produktu eta/edo material batzuekiko bateraezintasunak.

KONTRATUARI ATXIKI BEHARREKO BALIABIDE TEKNIKO ZEIN GIZA BALIABIDEAK

1. Nola esleipendunak hala garraio-enpresak (garraioa azpikontratatzeko den kasuetan) segurtasun-aholkularia dutela egiaztatzeke ziurtagiria; halaber, horren euskarri gisako dokumentazioa aurkeztea.
2. Sinatutako konpromisoa, PTPAko «5.4 Hornidura-erritmoa» apartatuan jasotako kondizioetan kontratuari estaldura emateko behar beste bitarteko izango direla bermatzeko, bai eta beharrezkoak diren ADR garraio-baimenak izapidetuko direla bermatzeko ere. Horretarako, 24 h X 365 d erantzun eta eskuragarri egongo diren telefonoa eta helbide elektronikoa emango dira, eskaeretarako.
3. Kontratuari eskainitako biltegiaritze-bolumena aintzat hartutako urteko bolumenaren % 10en baliokidea izango delako konpromiso izenpetua.
4. Fabrikatzailea ez bada, produktuaren fabrikatzaileak sinatutako konpromiso-gutun bat —kontratua indarrean den bitartean produktuaren hornidura bermatzekoa— aurkeztuko du.
5. Premiaz eskatutako hornigaiak 72 orduko epean entregatzeko konpromiso sinatua, eskaera egiten denetik zenbatzen hasita.



6. Hornigaien pisatze-kontrola egiteko erabiliko den baskularen homologazioari eta kalibrazioari buruz indarrean dauden ziurtagiriak.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeke ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

- 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.
- 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Ez da aplikagarria

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskainitako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

Prezioen zerrenda.

PARTIDA	UNITATEAK (t)	PREZIOA (€/t)	ZENBATEKOA (€)
% 25eko sodio klorito likidoa (10 m ³ -eko zisternak)	85,00		

Eskainitako prezio unitarioan (produktu komertzialaren tona bakoitzeko prezioa) salgaia BBUPen biltegian kokatzeko sortutako gastu guztiak barne hartuta egongo direla ulertuko da.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
- 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga.

Xabier Orue Moro.

Itziar Zarate Urrutia.

Gerardo Latorre Pedret.

Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Kontratua adjudikatuko zaio, prozedura ireki bidez, eskaintzarik txikiena aurkezten duen lizitatzailari; izan ere, horniduraren ezaugarriak dira adjudikazioa erabakitzeke irizpide bakarra.

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailak duen egoera kontuan izanik:

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzaila bakarra egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzaila egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzaila egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzaila edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea:

Ez da aplikagarria.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK



L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

Ondorengo zehapenak aplikatu ahalko dira, eta berehala aplikatu egingo dira, haien zenbatekoa ordaintzeko gelditzen den lehen fakturatik kenduz, edo, hala badagokio, azken likidazioan edo aurkeztutako behin betiko bermearen kontura.

Penalizazioak aplikatu eta ordaintzeak ez du baztertzen BBUPEk kontratistari egotz dakioken ez-betetzearen ondorioz sortutako kalte-galerengatik kalte-ordaina jasotzeko aukera.

Bete beharrekoa bete ezean, honako zehapen hauek aplikatuko dira:

Pisaketa ez betetzeagatiko penalizazioak:

BBUPEk lortutako pisaketa hornitzaileak adierazitakoa baino txikiagoa den kasuetan, bien arteko aldea ehuneko bikoia edo handiagoa bada (% 2), desbideratze horren bikoitzaren baliokidea izango da aplikatuko den penalizazioa, nola kontrolatu den entregaren zenbatekoari dagokionez, hala errektibo beraren aurreko entregaren zenbatekoari gagozkiola, egindako azken kontroletik aurrera.

Kalitatea ez betetzeagatiko penalizazioak:

Jasotako analisi-ziurtagiriaren/-buletinaren edota produktuari egindako analisiaren balioetako bat Preskripzio Tekniko Partikularren Agirian ezpurutasunetarako eta azpiproduktu nagusietarako adierazitako mugak baino handiagoa bada, desbideratze horren bikoitzaren (ehunekotan) baliokidea izango da aplikatutako zehapena, nola kontrolaren eraginpeko entregari dagokionez, hala hornitzaile beraren aurreko guztiei gagozkiela, egindako azken kontroletik edo egiaztatutako laborategi batek egindako azken analisiaren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Egindako analisiaren balioa PTPAn kontratistak eskatutako produktu kimikoaren narotasun-mugatik kanpo egonez gero ehuneko hirutik gora (% 3), desbideratze horren bikoitzaren baliokidea izango da aplikatutako zehapena, nola kontrolaren eraginpeko entregari dagokionez, hala hornitzaile beraren aurreko guztiei gagozkiela, egindako azken kontroletik edo egiaztatutako laborategi batek egindako azken analisiaren egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Entrega-erritmoa ez betetzeagatiko penalizazioak:

Ezohiko egoeran egindako edo 72 orduko epean hornitzeko eskaera batean atzerapena gertatuko balitz hornitzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, eta horren ondorioz instalazioaren funtzionamendu arrunta aldatuko balitz, aplikatzeko zehapena hornidura horren zenbatekoaren % 25ekoa izango da, atzerapen-egun bakoitzeko.

Egiaztatutako analisiak ez entregatzeagatiko zehapenak

Kontzeptu honengatik aplikatzeko zehapenak Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritako epean entregatu gabeko analisiaren kostua halako hiru izango dira. Kostu hori kalkulatzeko, ez-betetzea gertatzen denean AENOR laborategiak analisi horretarako ezarrita duen tarifa ezartzen da erreferentzia gisa.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztalaria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran aurkezteko betebeharra



P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, kontratuaren kondizioei eragiten dien alderdi orotan jarduteko eta enpresaren ordezkari gisa jarduteko gaitasun nahikoa izango duena.